

MERCABILBAOK 248.800 TONA BAINO GEHIAGOKO KOMERTZIALIZAZIO BOLUMENAREKIN ITXI DU 2016. URTEA

- **Merkatuak, aurreko urteetakoak baino komertzializazio datu handiagoekin itxi zuen iazko ekitaldia**
- **Mercabilbao etorkizuneko merkatuaren sozializazio prozesuan ari da lanean, 2021. urtetik aurrerako azpiegituren modernizazioari eta kontratu berriei dagokienez**

Bilbon, 2017ko ekainaren 20an.- Mercabilbaok aurrera jarraitzen du bere joera positiboarekin, 2016an 248.863 tonako komertzializazio bolumena lortuz, azken hamarkadetako emaitza hoberena. Elikadura Unitatea erreferente ekonomiko bilakatu da, eta azken urteetan izandako hazkunde eutsiari eusten dio.

2016ko jardueraren balantzea gaur goizean aurkeztu da Mercabilbaoko instalazioetan egin den Batzar Nagusian. Bertan, Juan Mari Aburto Bilboko Alkatea buru duen Gobernu Kontseiluko kide guztiak elkartu dira.

Sektoreka, fruten eta ortuarien salmenta 217.600 tona ingurukoa izan zen, hau da, 2014an lortutako datu historikoak baino %1,39 gehiago; hazkunde hori eragin duten produktuen artean azpimarragarriak dira platanoaren salmentak izan duen %10,17ko igoera eta gainerako fruten eta ortuarien komertzializazioaren hazkundera, %0,13 eta %1,06 artekoa. Batez besteko prezioari dagokionez, 1,01 €/kg-koa izan zen, %2,02ko igoera txikiarekin. Azpimarratzekoa da patataren prezioak 2015. urtearekin alderatuta izan zuen %31,25eko igoera. Horrek, sektoreko beste produktu batzuek izan zuten prezio igoerarekin batera, zenbait jaitziera moteldu zituen, %8,99koa izan zuen platanoarena, besteak beste.

Arrain sektoreari dagokionez, 27.600 tona baino gehiago mugitu zituen, 2015ean baino zertxobait gutxiago, produktu izoztuaren salmentan izandako %3,34ko jatsieraren ondorioz, arrainak edo itsaski freskoak gora egin zuten arren, %0,57 eta %1,23, hurrenez hurren. Prezioei dagokienez, joerak gorakoa izaten jarraitzen du sektoreko produktu talde guztietan. Batez besteko prezioa 6,48 €/kg-koa da, hau da, %4,52ko hazkundera. Azpimarratzekoa da produktu izoztuaren batez besteko prezioak izan duen %9,57ko igoera.

Bitartean, elikadura orokorreko merkatuan, arrautzetan, haragietan, esnekietan eta beste batzuetan, komertzializazioaren bolumena 3.500 tonatik gorakoa izan zen. Zifra horrek azken urteetako joerarekin jarraitzen du, %1,42ko jaitsiera txikiarekin. Beherakada horren zergati nagusia haragiaren produktu deribatuen eta esnekien salmenten jaitsiera izan zen, %8,35 eta %7,04 gutxiago saldu baitziren, hurrenez hurren. Hala ere, arrautzek, bildotsak edo behikiek leundu egin dute jaitsiera hori, horien komertzializazioak hazkunde arina izan baitzuen. Orokorrean, zifrek gorako joera erakusten jarraitzen dute, eta 2015ekoak hobetu dituzte, merkatua %100ean dago okupatuta, eta erakusten duen arrakasta eredu finkatzeko erabateko konpromisoa du, etengabe berrazmatuz eta eraldatuz, kontsumitzaileen eskariei erantzun ahal izateko, kalitatezko produktuekin.

Mercabilbaok 2016an izandako emaitza ekonomikoari dagokionez, 669.224 euroko irabaziak izan zituen, zerga ondoren. Kopuru hori finantzaketa iturri garrantzitsua izango da etorkizunean jarduerari eutsi ahal izateko gauzatu beharko diren inbertsioetarako.

Jarduera hori, Mercabilbaon ari diren pertsona guztien lanari esker da posible, operadoreei eta jarduera osagarrien gunean, merkataritza guneetan eta bulegoetan lan egiten dutenei esker, hain zuzen ere. 13 hektareako azaleran ehun enpresa baino gehiago ari dira, eta 1.000 pertsona baino gehiagok egiten dute lan. 2016an ia 677.000 ibilgailu hartu ditu, 3.000 sarrera inguru egunean, batez beste.

Salmenta moduetan gertatzen ari diren aldaketak eta jarduera logistikoen hazkundera ikusita, Mercabilbaok aurrera jarraitu zuen bere nazioartekotze estrategiarekin, Bilboko Portuarekin eta Bordeleko Merkatu Zentralarekin elkarlanean. Asmo handiko proiektu horrek gure merkatua finkatu egiten du Kantaurialdeko kostaldeko produktu galkorren elikadura banaketaren motore ekonomiko gisa, eta leku ezin hobea da Bizkaia Europarako ontziratzeke atea bilaka dadin.

Etorkizuneko merkatuaren sozializazio prozesua

2016an Mercabilbaok etenalditxo egin zuen, etorkizuneko merkatua diseinatzeko, azpiegituren modernizaziorako Plan Zuzendaria martxan jarri. Horrek instalazioen egoera eta egokitzapen beharrak ezagutzeko aukera eman du. Horrela, 2016ko azken hiruhilekoan plan horren ondorioak aurkeztu zitzaizkien merkatuko kolektiboari, eta baita 2021etik aurrera kontratu berriak kudeatzeko gogoetak ere, iradokizunak eta hobekuntzak aurkeztu ahal izateko.

Hala ere, aurreko ekitaldian aurrera jarraitu zen zenbait mantentze eta hobekuntza lan eginez, beste batzuen artean garbiketa eta hondakinen kudeaketa zerbitzuen berdefinizioa, argiztapena hobetzea eta estalkiaren konponketa platanoen pabilioian, pabiloi guztietako eraikinen energia ziurtapena eskuratzea, 235/2013 ED bete ahal izateko.

Beste urte batez, azpimarragarria da Mercabilbaok kontsumo arduratsuaren eta osasungarriaren alde aurrera eramandako sentsibilizazio kanpaina, Bizkaiko mila ikasle ingururekin, eta baita gastronomia eta kirol ekitaldietan izandako lankidetzaren ere. Horri guztiari, Bizkaiko Elikaduren Bankua duela bi hamarkada baino gehiagotik merkatuko instalazioetan egiten ari den lan soziala gehitu behar zaio, merkatuan sortzen diren produktuen soberakinak behar gehien dituztenei helarazteko (2016an, operadoreek 418 tona genero entregatu zituzten).

Urteko txostena eta memoria osoa: www.mercabilbao.eus